

## **TAKILETARA ETA ALDAGELETARA ERRESERBARIK GABE SARTZEKO** **OINARRIZKO ARAUAK**

1. Hondartzara Klubetik sartu eta takilak erabili ahal izateko, ez da beharrezkoa izango aldeztu aurretik erreserba egitea. Sarrera ate nagusitik egingo da, mugikortasun urriko bazkideak izan ezik, horiek arkupetik sartu ahal izango baitute.
2. Takiletara sartu baino lehen, Klubeko langileek adieraziko dute noiz pasa daitezkeen, pasiloetan pilaketak eta gurutzaketak egon ez daitezkeen.
3. Ez da gonbidaturik onartuko, ezta ACEDYR klubetako kiderik ere. Instalazioetarako sarbidea bazkideentzat bakarrik izango da.
4. Derrigorrezkoa da instalakuntzan maskara erabiltzea beti, kirola egiten denean izan ezik.
5. Nahitaez errespetatu behar da gainerako pertsonetik 2 metroko distantzia.
6. Oinetakoak sarrerako alfonbran garbitu behar dira instalaziora sartu aurretik.
7. Bazkide bakoitzaren tenperatura hartuko da kontakturik gabeko termometro infragorriarekin instalaziora sartu aurretik. 37,1°C-tik aurrera ezin izango da instalaziora sartu. Bigarren neurketa bat egingo da denbora bat igarota, sukarraren diagnostikoa baieztatzeke edo ezeztatzeke.
8. Harreran, bazkideak eskuak garbitu beharko ditu Klubak erretuko duen gel hidroalkoholikoarekin.
9. Atezainak bazkide edo eskumuturreko txartelarekin identifikatu beharko du instalaziora sartu aurretik.
10. Eskatzen diren zerbitzuak Klubaren txartelarekin edo eskumuturreko diru-zorroarekin ordainduko dira, ahal den neurrian eskudirutan ordaintzea saihesteko. Klubean sartzeko eguneko kuota (fitxa) ez da kobratuko dutxa-zerbitzua normalizatu arte.
11. Debekatuta dago, txorrotak erabiltzea. Aldagelen, komunetan eta dutxen erabilera progresiboa izango da, beti osasun-araudiaren arabera mugatuta.
12. Bazkide bakoitzak bere ur-botila ekartzea gomendatzen da.
13. Debekatuta dago kirol-instalazioetan erretzea, taberna inguruan ere. Ezin da janaririk sartu, ezta kristalezko ontzirik sartu ere.
14. Gainerako bazkideei eta instalazioko langileei zor zaien errespetua gordeko da. Jokabide jakin bati buruzko kezarik balego, zuzenean jakinarazi beharko zaie harreran klubeko langileei.
15. Gaixotasun kardiobaskularrak, hipertentsio arteriala, biriketako gaixotasun kronikoak, diabetesa, minbizia edo immunodepresioa duten eta haurdun dauden pertsonen gomendatzen zaie oraingo instalaziora ez joatea.

